


Txikizkako sektorearen salmentek % 1,1 egin dute gora Euskal AEn, 2023ko bigarren hiruhilekoan

Urteko metatuan, txikizkako merkataritzaren salmentak % 1,5 igo dira

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak % 1,1 handitu ditu salmentak 2023ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegi-eraginak atera ondoren eta prezio finkoetan, Eustaten datuen arabera. Salmenten urte arteko hazkuntza, gasolina-zerbitzuguneak kontuan izan gabe, % 2,3koa izan da.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaro-eragin egokiak kenduta, salmenten indizeak % 0,5 egin du gora 2023ko bigarren hiruhilekoan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaietako salmentek, prezio finkoetan, % 1,7 egin dute gora, 2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. *Gainerako produktuen* sektorean, salmenten urte arteko igoera % 2,8koa izan da. *Automobilgintzarako erregaiaren* sektorean, bestalde, salmentek % 11,1 egin dute behera, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, urtaro-eraginik gabe eta prezio finkoetan, *Elikagaien* eta *Gainerako produktuen* salmentek % 0,9 eta % 0,5 egin dute gora, hurrenez hurren. *Automobilgintzarako erregaiaren* salmentek, berriz, % 3,9 egin dute behera, hiruhilekoen arteko datuen arabera.

insertatabla_21199

Elikagaien sektoreko txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikagaietan, edarietan eta tabakoan espezializatutako* merkataritzaren salmentek (besteak beste, fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, eta abar) % 1,7 egin dute behera 2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. *Elikagaiak, edariak eta tabakoa nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuan* (batez ere, supermerkatuak eta hipermerkatuak), berriz, % 3,3 igo dira salmentak urte arteko terminoetan.

Gainerako produktuen sektoreko txikizkako merkataritzaren barruan, *Beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako* sektorearen salmentek (hartan sartzen dira, besteak beste, kirol-produktuak, jolasak eta jostailuak) % 4,1 egin dute gora, aurreko urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. *Gainerako produktuak nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuko* sektorean (korrespondentzia edo Internet) salmenten igoera % 3,7koa izan da. Azkenik, *Pertsonen ekipamenduetan espezializatutako* sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higienikoak) eta *Etxeko ekipamenduaren* sektorean (besteak beste, etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak) salmentek % 2,5 eta % 2,3 egin dute gora, hurrenez hurren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Lurralde historikoen arabera, 2023ko bigarren hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko % 3,4ko igoera izan du Gipuzkoan eta % 0,8koa Bizkaian. Araban, berriz, % 2,7ko jaitsiera izan du.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmenten bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan eta Bizkaian, eta hiruhilekoen arteko % 1,1eko eta % 0,2ko igoerak izan dira, hurrenez hurren. Araban, berriz, salmentei egonkor eutsi zaie 2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AE osoan, 2023ko bigarren hiruhilekoan, eta aurreko urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, txikizkako merkataritzaren sektoreko enplegatuen kopurua % 2,0 igo da. 2023ko lehen hiruhilekoaren aldean, berriz, igoera % 0,8koa izan da.

2023ko lehenengo bi hiruhilekoen balantzea

2023ko lehenengo bi hiruhilekoetan, txikizkako sektorearen salmentek % 1,5 egin dute gora aurreko urteko aldi metatu beraren aldean, eta ekarpen positiboak izan ditu bai *Elikaduraren* sektoreak (% 1,0) bai *Gainerako produktuen* sektoreak (% 2,8). *Automobilgintzarako erregaiaren* azpisektorean, aldiz, salmentek % 3,9 egin dute behera bi hiruhilekoetako metatuan.

Lurraldez lurralde, Bizkaian aurten, orain arte, salmenten igoera metatua % 2,8koa da eta Gipuzkoan % 1,4koa. Araban, aldiz, salmentak % 2,9 jaitsi dira.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % **92,3ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62